

# 'Talentua', modako hitza



**KIMETZ ARANA BUTROE**  
BARATZEZAINA

**A**sko aipatzen da politika, ekonomia eta enpresa munduan. Talentua teknologia berriak aplikatu eta zabaltzeko motorra da, ezagutza eta berrikuntza ardatz dituen gaurko gizartean. Gainera, lurralde baten lehiakortasunaren, etorkizunerako egokitzapenaren eta garapen ahalmeneren neurgailu ere bada.

Horregatik, talentua zabaltzeko eta sustraitzeko xedean unibertsitate eta lanbide heziketan formakuntza tekniko berriak diseinatu eta eskaintzen dira, lehendik ezagutzen ez genituen arlotan. Era berean, teknologia jardueretarako guneak sortu eta formatutako langileak tokian gelditzeko baldintzak sortzen saiatzen dira bateko zein besteko administrazioak.

Gaztaroan oinarritzko heziketa zein batxilergoa bukatu eta ikasketa bat aukeratzeko orduan normala da dudak izatea. Hala izan ginen gu eta horrela dira orain asko. "Datorren urtean zer?" galdetuta, "ez dakit baina oposizioak..." diote. Berdin liburuzain, irakasle, atezain, ertzaingai, administrari edo basozain. Funtzionariotza helburu, lepo dago herriko liburutegia.

Berdin liburuzain,  
irakasle, atezain,  
ertzaingai, administrari  
edo basozain.  
Funtzionariotza  
helburu, lepo dago  
herriko liburutegia

Bizkaiko lantegi handien kulturaz gazte bat lanean hasitakoan gure aita-amamek "ya se ha colocado" esaten zuten, bizi guztirako postua lortu zuelakoan. Ildo berean, lanarekiko interesaren gainera, errotutako errotasuna, lanpostua mantentzearen segurtasuna edo, batzuetan, lanarekiko ardurarik hartu nahi ez izana dira funtzionariotza aukeratzeko argudiotako batzuk.

Enpresa munduan, aldiz, gero eta ohikoagoa da pertsona batek bizitzako aldi desberdinetan lanez edota, areago, sektorez aldatzea. Joera hori indartuko dela dirudi.

Hortaz, lan berri baterako egokitzapenak dakartzen zailtasun eta ahalegina nabarmentzen dituzte zenbaitek. Besteek, ordea, epealdi ertainetan lanez aldatzeak bizi guztirako lan errepikakorraren aurrean osasun mentalerako onura dakarrela diote, pertsona gustuko arloan ari denean bereziki. Nolanahi dela, egoera berrira errazago egokituko da talentuduna.

Lan tradizionala beti izan dira profesional artistak. Aurrean duten arazoa aztertuta konponbide estetiko eta funtzionalak bilatu dituzten nekazari, igeltsero, arotz, sukaldari, tornulari eta abarrak. Beren arloko ezagutza teknikoek gain haien trebeziak gartzeko beharrezko izan zaizkie behaketa, laneko autonomia, ikuspegi zabala, prozesuak hobetzeko nahia eta bere arloarekiko grina.

Beraz, talentudun jendartearen sorreraz badugu helburu jakitate teknikoek gain, beharrezko da eskola, herri eta enpresetan lehen aipatutako ezaugarriak lantzea. Prozesu berria diseinatu duen ingeniariatik leihatilako funtzionarioraino, talentuz, gogoz eta bokaizoz. ●

**2024KO MAIATZAREN LEHENA**

**ANTOLATU BORROKATU IRABAZI**

**Bilbo 11:30**  
Jesusen Bihotza

**Iruña 11:30**  
Gurutze Plaza

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA